# XXXIV CURSOS DE VERANO EN SAN SEBASTIAN
# XXVII CURSOS EUROPEOS

***Dificultades de la juventud vasca para el ejercicio efectivo de sus derechos de ciudadanía, especialmente los ligados a la construcción de su proyecto de vida autónoma.***

Buenos días. Constituye para este Ararteko un motivo de gran satisfacción participar en la apertura de los XXXIV Cursos de Verano de la Universidad del País Vasco (EHU-UPV), XXVII Cursos Europeos.

Y ello por tres motivos:

- Para empezar, porque este es mi primer acto de ararteko, pues, como saben, ayer juré mi cargo en el Parlamento Vasco e inicié este ilusionante camino como alto comisionado parlamentario para la defensa de los derechos de las personas.
- En segundo lugar, por hacerlo en esta actividad. No es ningún secreto que el prestigio alcanzado por los cursos de verano de la UPV supone un certificado de garantía para una actividad como la que hoy nos proponemos comenzar. En relación con esto, aprovecho para agradecer a la organización de los cursos su colaboración con el Ararteko desde que en 1997 se organizara de manera conjunta el primero de ellos. Podemos decir que ya hemos cumplido nuestra mayoría de edad en esta actividad organizada en colaboración con la UPV.
- Y por último, por mi trayectoria profesional durante muchos años en Europa. Créanme que las dificultades de la juventud para el ejercicio de sus derechos de ciudadanía son motivo de preocupación permanente en el Consejo de Europa y sus instituciones y está muy presente en las acciones que emprende instando a los Estados a que apoyen acciones positivas para su solución, al igual que nosotros y nosotras hacemos en el día de hoy.

En el capítulo de agradecimientos, además de a la universidad, a la que ya me he referido, quiero agradecer **a los y las ponentes** su colaboración con la institución del Ararteko para el éxito de la jornada, así como su esfuerzo para que estén disponibles las ponencias escritas desde el inicio mismo del curso, pues ya las tienen todos ustedes disponibles en nuestra web ararteko.eus.

**Gracias a todas las personas que se han inscrito en este curso.** Espero que salgan satisfechas a su término por la altura e interés de los contenidos y por la importancia de las conclusiones a las que lleguemos. Quiero destacar de forma especial el trabajo que las ONG, algunas de las cuales están aquí representadas, desarrollan a favor de la vida digna de la juventud. Para el Ararteko, las ONG son los ojos y los oídos de la sociedad y de los colectivos que la integran, y unos observadores privilegiados de la misma que, a través de nuestras intensas y constantes relaciones, nos ayudan a conocer el pulso de la sociedad.

Para finalizar, es evidente que esta jornada ha podido llegar a buen puerto gracias al impulso y magnífico trabajo realizado por quienes han desarrollado esta tarea en los últimos meses, por lo que quiero expresamente agradecer a Julia, a Inmaculada y a Elena su compromiso y esfuerzo para que hoy podamos compartir esta mañana.

Gracias pues, a todas las personas presentes, acompañadas del deseo de que al finalizar la mañana nos vayamos todos con la sensación de unas horas fructíferas.

Manuel Lezertua Rodríguez
Ararteko

# XXXIV. UDA IKASTAROAK DONOSTIAN
# XXVII. EUROPAR IKASTAROAK

***Euskal gazteen zailtasunak beren hiritar eskubideak egiaz baliatzeko, batez ere bizimodu autonomoa egiteko proiektua eraikitzearekin lotutakoak*.**

Egun on. Oso pozgarria da niretzat Euskal Herriko Unibertsitatearen XXXIV. Uda Ikastaroen (XXVII. Europar Ikastaroen) hasiera-ekitaldi honetan parte hartzea.

Hiru arrazoirengatik:

- Hasteko, hauxe dudalako lehen ekitaldia ararteko bezala, izan ere, dakizuenez, atzo karguaren zina egin nuen Eusko Legebiltzarrean eta bide zirraragarri honi ekin nion eskubideak defendatzeko legebiltzarraren goi mandatari gisa.
- Bigarrenik, jarduera honetan hasi naizelako. Begi-bistakoa da EHUren uda ikastaroek lortu duen ospea berme-ziurtagiri bat dela gaur hastera goazen tankerako jarduera baterako. Horren haritik, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet ikastaroen antolatzaileei Arartekoarekin lankidetzan aritzeagatik, 1997an lehendabiziko ikastaroa elkarrekin antolatu zutenetik. EHUrekin elkarlanean antolatutako jarduera honetan helduarora iritsi garela esan dezakegu.
- Eta, azkenik, Europan urte askoan egin dudan lan-ibilbideagatik. Sinets iezadazue, gazteek beren herritar-eskubideak gauzatzeko dituzten zailtasunak etengabeko kezka sortzen dute Europako Kontseiluan eta haren erakundeetan, eta hori oso gogoan izaten da Kontseiluak hasten dituen ekintzetan. Horregatik, arazo hori konpontzeko, Estatuei eskatzen die ekintza positiboen alde egin dezatela, gaur hemen egiten ari garen moduan.

Eskerrak emateko orduan, unibertsitateari ez ezik –lehen aipatu dut hori-, **hizlariei** ere eskertu nahi diet Ararteko erakundearekin lankidetzan aritzea jardunaldi honek arrakasta izan dezan, baita ere ikastaroaren hasieratik bertatik ponentzia idatziak eskura izateko egin duten ahaleginagatik, dagoeneko eskuragarri baitauzkazue gure web orrian: ararteko.eus.

**Milesker ikastaro honetan izena eman duzuen guztioi.** Espero dut ikastaroaren amaieran pozik ateratzea, edukiak mamitsuak eta interesgarriak izan direlako eta ondorio garrantzitsuak atera ditugulako. Bereziki nabarmendu nahi dut Gobernuz Kanpoko Erakundeek (GKE) egiten duten lana gazteen bizimodu duinaren alde; erakunde horietako batzuek ordezkariak dituzte hemen. Arartekoarentzat, GKEak gizartearen eta gizarteko taldeen begi-belarriak dira, behatzaile pribilegiatuak, eta beraiekin ditugun harreman estu eta iraunkorren bitartez, gizartearen gorabeherak ezagutzen laguntzen digute.

Bukatzeko, agerikoa da azken hilabeteotan jardunaldi hau bultzatu eta lan bikaina egin duten pertsonei esker burutu ahal izan dela jardunaldi hau. Horregatik, bereziki eskerrak eman nahi dizkiet Juliari, Inmaculadari eta Elenari, goiz hau elkarrekin eman ahal izan dezagun hartu duten konpromisoagatik eta egin duten ahaleginagatik.

Eskerrik asko, bada, hona etorri zareten guztioi, eta goiza bukatzean, ordu hauek emankorrak izan diren sentsazioarekin etxeratzea nahiko nuke.

Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa